

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Onura publikoko 73. mendiko azalera bat desafektazioa

Laudioko Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2016ko abuztuaren 29an izandako ohiko bileran erabaki zuen onartzea 939,96 m² desafektatzea onura publikoko 73. mendian, "Arraño" izenekoan. Azalera hori landa-finken katastroko 380 lurzatiaren 2 poligonoari dagokio, 3740 erregistro-finkari. Desatxiki ondoren partikular batekin trukatzeko izango da.

Adierazitako desafektazio-erabakia jendaurrean ikusgai izango da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren ondorengo egun baliodunetik zenbatzen hasita, nahi duenak alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.

Laudio, 2016ko irailaren 2a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA